

## **2021. URTEKO SAN MARTIN FERIAN SEMINARIXOKO PATIOAN ODOLOSTEAK DASTATZERA EMATEKO TXOSNAREN USTIAPENA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK**

Begarako harakinek duela urte batzuetatik hona, San Martin feria dela-eta, beraien produktua ezagutzera emateko eta feriara etortzen direnek dasta dezaten, eta bide batez herriko irabazi asmorik gabeko talderen batek diru-sarrera batzuk lortzeko aukera izan dezan, Bergarako Udalari beraiek egindako odolosteak doan eskaintzen dizkiote.

Udalak harakinen iniziatiba hau positiboki baloratzen du eta, horregatik, lurzoru publikoa okupatuz doan emandako produktua saltzeko txosna jarri eta, behar izanez gero, oinarri hauetan jasotako laguntza eta ustiatzeko aukera ere ematen die herrian egon daitezkeen irabazi asmorik gabeko taldeei, dagozkion oinarriak onartuz.

Honako hauek dira aipatutako oinarriak.

### **1. Deialdiaren xedea:**

2021eko irailaren 11n, **Seminarixoko patioan** Udalak jarriko duen txosnaren ustiapena adjudikatzea da oinarri hauen xedea.

Txosna honen arrazoia da Bergaran ospatuko den San Martin feria girotzea eta, horrekin batera, herriko hainbat harategik (Begarako Udalak adieraziko die aurrez zeintzuk izango diren) emandako odolosteak saltzea, Bergaran egindako odolosteak ezagutzera emateko ere.

### **2. Eskerak:**

Begarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultura, kirol, ongintzako elkarteak eta herriko taldeak aurkez ditzakete eskaerak.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera.

Entitate, elkarte edo taldea adinez txikiak direnek osatzen badute gehiengoz, hauen ordezkari legalak –honetarako izendatutako ahalmen osoa duen pertsonak– aurkeztu beharko du eskaera.

Bestalde, txosnaren jardueraren erantzukizun osoa eta baldintzak betetzearen erantzukizuna eskatzaileak bere gain hartzen dituela ulertuko da.

Eskerak aurkezteko epea 2021eko **abuztuaren 29ean** 12:00etan bukatuko da.

Eskerak dagokion inprimakia beteta aurkeztu ahal izango dira:

- Aurrez aurre: udaletxean, Bergararren Arreta Zerbitzuan (B@Z).
- Internet bidez: Bergarako Udalaren webgunetik, on line tramiteak erabilita.

### **3. Ustiatzailearen betebeharrak.**

A. Jendaurrean lan egin behar dutenek euskaraz hitz egiten jakin beharko dute.

- B. Goizean 10:30erako zabaldu eta eguerdiko 15:00etarako itxi beharko da.
- C. Txosna bera utzitako baldintza berdinetan bueltatu beharko da; egunean bertan arratsaldeko 17:00etarako garbi eta libre utzi beharko da.
- D. Ustiatzaileak arduradun bat izendatu beharko dute, udalarekiko harremanetarako. Izendapen hau idatziz egin beharko da eta Kultura Zerbitzuan aurkeztu beharko da, adjudikazioaren berri jasotzen dutenetik kontaktzen hasi eta 5 egun naturaleko epean.
- E. Txosnan udalak aurrez adieraziko dien Bergarako harategiek dohainik emandako **ODOLOSTEAREKIN** egindako pintxoak saldu beharko dute, eta prezioa **gehienez 2,5 eurokoa izango da, ardoa, sagardoa, ur botila txikia, mostoa edo antzekoak barne**.
- Ogia eta edaria txosnaren ustiatzaileen kontura izango dira.
- Edaririk gabe ere saldu ahal izango diete odoloste-pintxoak, horrela eskatzen duten guztiei, eta kasu honetan salmenta prezioa gehienez ere **euroko 1ekoa** izango da.
- Halaber, produktu hauek prestatu eta saltzeko orduan harategi horiek emandako instrukzioak jarraitu beharko dituzte.
- F. Prezio hauek jendearentzat ikusgai jarri beharko dira txosnan.
- G. Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak (Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak) ezarritakoaren arabera, debekatuta dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholikoak eta tabakoa saltzea.
- H. Dohaintza egin duten harategien aipamena modu ikusgarri batean jarri beharko dute, horretarako Udalak egingo duen kartela txosnan bertan ipiniz.
- I. Egun horretarako behar den generoa batzeko, bestelako behin-behineko instalazio edo eranskinik beharko balute ustiatzaileek, euren kontura muntatu eta kendu beharko dute, aurrez okupazioa zelakoa izango den Udalean jakinarazi beharko dutelarik. Instalazio hau ere txosna husteko epe berean kendu beharko dute.
- J. 375 euroko fidantza jarri beharko dute aurrez, 2021eko irailaren 2a baino lehen.
- K. Sortzen diren hondakinak ondo sailkatuak biltzen direla ziurtatu beharko da. Horretarako, Udala arduratuko da ontziak ekitaldia burutuko den gunera eramateaz. Organikorako 2 edukiontzi utziko ditu (90 litrokoak), eta bestelakoak edukiontzi bana. Jaia bukatzean Udala arduratuko da organikorako ontzi hauek jasotzeaz eta larrialdi-gunera eramateaz. Ontzi arinak, papera eta/edo beirak, berriz, adjudikazio-hartzailearen ardura izango da dagozkien edukiontzietara botatzea.
- L. Feria egunean ez da musikarik egongo.
- M. Kartel edo antzekoei dagokienean:
- Txosna-gunean ezingo da jarri pertsonak edo taldeak iraintzeko edo gutxieteko aipamenak dituen kartelik, irudirik edo antzekorik; eta bateren bat agertuz gero, berehala kentzeaz arduratuko da.
  - Txosna-gunean ez da irudi/esaldi sexistarik jarriko; eta bateren bat agertuz gero, berehala kentzeaz arduratuko da.

- Txozna ustiatzen duen taldearen izena eta prezioak jasotzen dituzten kartelak bakarrik jarri ahalko dira, azken hauek derrigorrezkoak izanik.
- Harategien izenak zehazten dituen kartela Udalak jarriko du.
- Eman beharreko informazioa (prezioak...) euskara hutsean edo ele bietan egingo da. Ele bietan balitz, euskarari lehentasuna eman ez egin beharko da.

N. Txosna ustiatzen duen elkarteak gel hidroalkoholikoa eta egun horretan COVID-ari aurre egiteko indarrean dauden segurtasun neurri guztiak bete beharko ditu.

O. Udalak gunean mahaiak eta aulkiak jarriko ditu. Ustiatzailearen ardura izango da gune hau garbi eta desinfektatuta edukitzea. Gunean ezingo da zutik jan edo/eta edan. Ustiatzailearen ardura izango da herritarrak mahaietara bideratu eta mahaietan eserita kontsumitzea.

#### **4. Adjudikazioa:**

Adjudikazioa zozketa bidez egingo da, abuztuaren 31n eguerdiko 13:00ean udaletxean, lehen solairuan.

Eskaera aurkeztu dutenen artean egingo da zozketa.

Txosnaren ustiaketa konpartitzea posible izango da, baldintza hauekin:

1. Zozketaren arabera adjudikazio-hartzaile suertatu direnen oniritzia beharko da.
2. Zozketaren ondorioz egindako zerrenda errespetatu beharko da; hau da, konpartitzeko preferentzia izango dute 2.ak, 3.ak eta abarrek.
3. Konpartitzea erabakitzen badute, horren berri eman beharko diote Udalari.

#### **5. Udalaren betebeharrak**

Udalak 5 x 5eko karpa bat eta mahaiak jarriko ditu, odolosteen salmenta ahalbideratzeko. Behar izanez gero, ura, odolosteak egosteko lapikoak eta sutegiak (ez bonbonak) Udalak utziko dizkio adjudikazio-hartzaileari.

Udalak gunean bertan mahaiak eta aulkiak jarriko ditu jendeak bertan jan dezan.

#### **6. Ustiatzeko eskubidea:**

Ustiatzaileak ezin izango dio ustiatzeko eskubidea beste edozein talde, elkarte edo abarri zeditu. Interesik ez balu, IRAILAREN 2rako Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko lioke, eta zozketan erreserbarako atera denari adjudikatuko zaio.

#### **Oharra**

Covid-19aren ondorioz egoerak okerrera egingo balu eta horrelako feria egitea ezinezkoa balitz, feria bertan behera geratuko litzateke. Hori gertatuz gero, ustiatzaileari mezu elektronikoz edo/eta telefonoz adieraziko zaio erabakia.



Udalak, edo indarrean dagoen araudiak, segurtasun, higiene edo bestelako baldintzak betetzen ez direla ulertuta, feria bertan behera uztea erabakiko balu, ustiatzaileak ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.